



#PALESTINADA ASKOZ GEHIAGO, PALESTINARA HURBILDU ETA MUGITU MILIOIKA PERTSONAREN GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAN

Bakerako Lankidetzeta Batzarrea / Asamblea de Cooperación por la Paz (BLB/ACPP) elkartearen erronka nagusietako bat, herritarrak bizitzen ari garen munduko gertakarien inguruan sentsibilizatzea, errefuxiatuen eta desplazatuen errealitatea erakustea, gatazken ondorioei buruz sentsibilizatzea eta emakumeak eta gizonak berdintasunez eta duintasunez gara daitezkeen bakean oinarritutako gizarteak sortzeko beharraz sentsibilizatzea da. Iparra-Hegoa harremanetan bazterkeriaren eta desberdintasunen aurkako borrokak, disparekotasun horiek mantentzen dituzten mekanismoak eraldatzeko mobilizazio-lana dakarrela uste dugu, eta premisa horrekin lan egiten dugu.

Deialdi honen helburua Palestinara lagunduko diguten 2 pertsona, kazetari eta/edo gizarte-aktibista, aurkitzea da, bertatik bertara ezagutzeko Zisjordanian bizi den errealitatea eta BLB/ACPPk tokiko erakunde bazkideekin batera garatzen dituen proiektuak, eta bisitaldian zehar eta bisitaren ondoren esperientzia eta ikaskuntzak euskal gizartearekin partekatu ahal izateko.

¿Nork antolatzen du?

Bakerako Lankidetzeta Batzarrea / Asamblea de Cooperación Por la Paz (BLB/ACPP) 17 herrialdeetan lankidetzeta eta ekintza humanitario proiektuak eta gure hiri eta auzoetan gizarte eraldaketarako hezkuntza eta esku-hartze ekimenak lantzen dituen GGKE laiko eta aurrerakoia da. (Gehiago jakiteko gure web orrian sartu zaitezke: www.acpp.com)

¿Palestina eta gure proiektuak ezagutu nahi dituzu?

¡Irakur itzazu arretaz lehiaketarako oinarriak!

1. ¿Nola parte hartu?: partehartzaile bakoitzak e-mail bat bidali beharko du blb@acpp.com helbidera datu pertsonalak (izen-abizenak, adina, bizilekua), aurkezpen testu txiki bat (ingeles maila, gizarte mugimendu eta aktibismoari lotura, interesgarriak diren ezagutza eta esperientziak, BLB/ACPP-rekin Palestinara joateko motibazioa), Sare Sozialetara eta Sare Sozialetan, blogetan, komunikabideetan edo bestelako plataformatan argitalpenetara estekak, gure gertuko errealitatea justizia sozialarekin, giza eskubideen defentsarekin, pobreziaaren aurkako borrokarekin eta bakearen, berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuaren balioekin konprometitutako gizarte-ereduetara aldatzeko konpromisoa agerian uzten dutenak.

2. Parte hartzaileak: Kazetari edota gizarte-ekintzaileek, arlo horietan prestakuntza jasotzen ari diren gazteek, edo interesa duten pertsona guztiak har dezakete parte, adin nagusikoak, edozein nazionalitatekoak eta Euskadin bizi direnak. Ezinbestekoa da komunikatzeko eta elkarrizketa bat ulertzeko ingeles maila nahikoa izatea.

3. Lehiaketa faseak: Hiru lagunez osatutako epaimahai batek bidaia egingo duten pertsonak aztertu eta hautatuko ditu, aurkezpen-testuan, sare sozialen profiletan, argitalpenetan, apuntatutako pertsonen esperientzia eta ezagutzetan eta elkarrizketa pertsonal batean oinarrituta. Epaimahaia hurrengo hiru pertsonen osatuko dute:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izenean ordezkatzaille bat, M.^a Pilar Diez Arregui
- Donostiako Udalaren izenean ordezkatzaille bat, Agurtzane Orthous
- BLB/ACPP-ren izenean ordezkatzaille bat, Mónica González, BLB/ACPP-ren Euskadiko delegatua

4. Egutegia eta aurkezpena: Hautagaitzak modu digitalean aurkeztuko dira blb@acpp.com helbide elektronikoaren bidez. Proposamenak 2023ko urtarrilaren 13tik 22ra bitartean jasoko dira, eta ondoren hautaketa egingo da. Bidaiaren datak aukeratutako pertsonekin adostuko dira eta 5 eta 7 egun arteko iraupena izango du.

5. Eskubideak: BLB/ACPPk, Donostiako Udalaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin, bere gain hartuko ditu jardueraren barnean hegaldi, garraio, ostatu eta mantenuaren kostuak. Segurtasunari dagokionez, aseguruia BLB/ACPPk ordainduko du, eta hautatutako pertsonen batera BLB/ACPPko langileak egongo dira une oro; elkarrekin herrialdea, gure proiektuak eta tokiko bazkideak bisitatuko dituzte, baite beste eragile garrantzitsu batzuk ere.

Izena emateko partekatzen duzun informazioa konfidentziala da, eta ez da inon zabalduko edo partekatuko.

#PALESTINADA ASKOZ GEHIAGO, PALESTINARA HURBILDU ETA MUGITU MILIOIKA PERTSONAREN GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAN

6. Zer ez da sartzen?: aurreikusitako agendatik kanpoko ordainsariak, bisitak eta txangoak, barne hartuta ez dagoen beste edozein kontzeptu.

7. Betebeharrak: Hautatutako pertsona oro har BLB/ACPP-ren misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin identifikatu beharko da, eta bereziki Palestinan egiten duen lanarekin; horretarako, elkarrizketa pertsonalak egingo dira. Gai sentikorretan erakundearen jarraibideak betetzeko konpromisoa hartuko du, gure tokiko bazkideak eta BLB/ACPP-ko langileak beharrezkoak ez diren arriskueta ez jartzeko. Aukeratutako pertsona bazara, BLB/ACPP-rekin adostutako bidaia-egunkari bat osatu beharko duzu, argitalpenetan BLB/ACPP eta proiektua babesten duten erakundeak aipatu beharko dituzu, eta bisitaren ondoren euskal gizarteari itzultzeko gutxienez jarduera batean parte hartu beharko duzu. Lehiaketan inskribatutako pertsona bakoitza bere argitalpenen eduki guztiaren erantzulea da.

8. Oinarrien onartzea: Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar.

Informazio gehiago behar baduzu edo edozein zalantzarako, idatziezaguzu: blb@acpp.com

Antolatzailea / Organiza:



Laguntzaileak / Con el apoyo de:

